



DANIA BEACH JAI ALAI THE CASINO @ DANIA BEACH
BISCAYNE CUP

2024-2025 DENBORALDIA • OTSAILAREN 20, 21 ETA 22AN • DANIA / FLORIDA / U.S.A

THE CASINO @
DANIA BEACH



ERAMANI

ASTORE

JAI ALAI
NEWS

(EUSK)

BISCAYNE CUP JAI ALAI LEAGUE-A NAZIOARTETZEKO APOSTUA

Eusko Label Winter Series txapelketa bukatu bezain laster, Jai Alai Leaguek bere nazioarteko lehen txapelketa hartuko du Danian (Florida). Master kategoriako torneoa da eta **otsailaren 20, 21 eta 22an** jokatu da. Hala ere, hau ez da zirkuituko "beste" proba bat denboraldiko apustu nagusia baizik. Proiektu honen helburuak, Ligarako banatuko dituen puntuak baino askoz garrantzitsuagoak dira.

Izan ere, **Biscayne Cup**-en lehen edizioa pieza garrantzitsua da **ERAMAN!** enpresaren plan estrategikoan. Helburua nagusia, zesta-puntaren nazioarteko izaera bizirik mantentzea da.

Horretarako, enpresak honako pilotari hauek eramango ditu Floridara: **Erkiaga, Lopez, Barandika, Mancí, Johan eta Lekerika**. Hauekin batera, Danian momentu honetan jokatzeko ari den txapelketako bikote irabazlea sailkatuko da. Aurre-txapelketa hau urtarrilaren 3an hasi zen, zortzi bikotek hartu dute parte eta Jai Alai Leaguerako puntuagarria da.

Lehen aipatutako pilotari guztiak Daniako kuadroan jokatu dituzte, Aritz Erkiaga kenduta.

ZERGATIK DANIAN?

ERAMAN! enpresaren helburua, zesta-puntaren sua bizirik mantentzea da, munduan zutik geratzen diren frontoi luzeetan. Nazioartekotze honen lehen pausua Danian (Florida) emango dugu. Zergatik?

- Estatu Batuetan oraindik zabalik dagoen frontoi luze bakarra da. Hiru hilabeteko denboraldia eskaintzen du.
- Daniako denboraldi honek, pilotari gazteen hobekuntzan lagundu dezakeela uste dugu.
- Harreman oso ona dago ERAMAN! enpresaren eta Dania Jai Alai intendentziaren artean (Benny Bueno).
- Harreman horren lehen emaitza, bi frontoien arteko koordinazioa izan da, Urreisti eta Gorka gazteek Winter Series eta Daniako denboraldia, biak jokatu dituzten.
- Gure belaunaldiarentzat, Dania izan da frontoirik ezagunena eta gertuen sentitu duguna.

· Historia handiko pilotalekua da Dania. 1953an inauguratu zuten, Durangoko Ezkurdi baino bi urte lehenago (1955) eta Gernikako Jai Alaia baino 10 urte lehenago (1963).

ILUSIOA BERPIZTEA

Ehun urte eta gero, zesta-punta oraindik bizirik dago Estatu Batuetan. Herrialde horretan, jarraitzaileek osatutako komunitatea dago oraindik. Horregatik, Biscayne Cup-en lehen edizioan, hauek izango dira helburuak:

- Estatu Batuetako zaleen artean ilusioa berpiztea eta jarraitzaile guztiak txapelketa handi batean elkartzea.
- Estatu Batuetako publikoari goi-mailako txapelketa bat eskaintzea, pilotaririk onenak bertara eramanda.
- AEBtako garai bateko txapelketa handiak gogoraraztea (NAJF, Citrus, World Series, etb).
- Zesta-punta, apustu modu bat beharrean, kirol ikuskizun bezala aurkeztea,
- Bertako jarraitzaileak, enpresak eta erakundeak aktibatzea. Beraiena da AEBtan zesta-punta bizirik mantentzearen erantzukizuna baina horretarako beharrezkoa ikusten dugu, txapelketa handi bat antolatzea. hartzeko aukera zuzena izan dute.

ZESTA-PUNTA HERRI PROIEKTU BEZALA

Zesta-punta herri proiektu bezala ikusten dugu. ERAMAN! enpresaren helburua "Jai Alai League"-a zabaltzea da eta munduan zutik dauden frontoi luzeetara eramatea. Duela gutxi honako adierazpenak egin ditu Carmelo Ezpeleta, Dorna Sports enpresako (Moto GP) zuzendari nagusiak: "Zesta-punta da Euskadik munduan aurkezteko duen ikur edo bereizgarri handiena".

Zesta-punta gure herri-identitatea zabaltzeko erraminta bat dela uste dugu eta Jai Alaiak nazioarteko presentzia izan behar duela.

ESTATU BATUAK ETA JAI ALAIA: 100 URTE BAINO GEHIAGOKO HISTORIA

Zesta-puntak mende bat baino gehiagoko historia dauka Estatu Batuetan. XX. mende hasierako frontoiak alde batera utzita -San Francisco (California) eta Saint Louis (Missouri)-, Jai Alai kirola 1924garren urtean iritsi zen Floridara. Kubarekin duen

hurbiltasunak eragin zuen hori eta enpresari talde batek lehen frontoia ireki zuen Miamin. Frontoi hori Hialiah izeneko zonaldean eraiki zuten, gaur egun, Miamiko metropoliaren parte dena. Hialiah-ko frontoian hasi zen zesta-puntaren abentura amerikarra eta gaur egunera iritsi da..

Ondoren, 1926garren urtean, Miamiko frontoi ezaguna eraiki zen. Garai hartan BISCAYNE FRONTON jarri zioten izena eta Hialiah-koaren lehiakide zuzena izan zen. Eraikin berria handiagoa zen, dotoreagoa eta kokaleku hobean zegoen. Urte horretan bertan, 1926an, hurakan handi batek Miami hiria txikitu zuen eta Hialiah-ko frontoia ez zuten gehiago zabaldu. Hango enpresariak New Orleans eta Chicagora joan ziren, zesta-punta hiri horietara eramanez eta Miamin frontoi bakarra geratu zen: Biscayne.

1929ko “Depresio Handiaren” ostean, Bostongo enpresari batek, Richard Berensonek, Biscayne pilotalekua erosi zuen. Enpresari hau figura garrantzitsua izan da zesta-puntaren historian, are gehiago 30. hamarkadan Floridan apostua legeztatu zutenean. Aldaketa horrek zesta-punta sinistu ezineko lekura eraman zuen. Fontoi berriak ireki zituzten. Lehenik Floridan eta ondoren, 1970. hamarkadan, Connecticut, Rodhe Island eta Nevada estatuetan. Daniako frontoia 1953an ireki zuten (Durangoko Ezkurdi baino 3 urte lehenago eta Gernikakoa baino 10 urte azkarrago). Hasiera hartan, “The Palace” izenez ezagutzen zuten eta zesta-punta ikustera joatea, prestigio handiko ekintza soziala bihurtu zen.

Denetara, 16 frontoi ere egon ziren, aldi berean irekita. 500 bat pilotari, hainbat enpresetan kontratatuta. Hasieran denboraldiak 3-4 hilabetekoak ziren, eta pilotariak frontoi batetik bestera mugitzen ziren. 80. hamarkada hasieran, negozioaren errentagarritasuna ikusita, frontoiek euren eskaintza urte osora zabaltzea erabaki zuten.

1988ko greba ez zen pilotarien lehen lan-gatazka izan, baina bai garrantzitsuena eta historian mugarri erabakigarria ezarri zuena. Lan-uzteak 1991ra arte iraun zuen. Hiru urte horietan, kirol berriak agertu ziren eta aposturako modu berriak legeztatu zituzten. Orduetik aurrera, zesta-puntak bere dekadentzia hasi zuen. Frontoiak banan banan ixten joan ziren, 2021ko azaroan azken pilotaleku luzea itxi zuten arte. Dania Jai Alai. Lege aldaketa bat medio, degoeneko zesta-punta ez da beharrezkoa kasinoa zabalik mantentzeko.

Hala ere, eta legeak eskatu gabe, 2022az geroztik 2-3 hilabeteko zesta-denboraldiak eskeintzen ditu Daniako frontoiak eta 22 euskal gaztek osatutako euskal talde batek, AEBtara joan, mundua ezagutu eta pilotari bezala hobetzeko aukera dute oraindik. Sua bizirik mantentzen da.

KRONOLOGIA

Zesta-punta 1888an sortu zen kirol diziplina bezala Argentinan. Ia 140 urteko historia horretan, nazioarteko identitatea bere izaeraren parte izan da, batez ere, Estatu Batuetako aroa. San Francisco eta Saint Louiseko lehen frontoiak alde batera utzita, hau da historia horren laburpena.

- 1924. Hialiah-ko frontoia ireki. Floridako lehenengoa.
- 1926. Biscayne Frontoia ireki (Miami Jai Alai)

- 1926. Miamiako hurakan handia. Hialiah itxi.
- 1926-27. Frontoiak New Orleansen eta Chicagon.
- 1929. Depresio Handia.
- 1933. Richard Berensonek Biscayne Frontoa erosi.
- 1934. Apostuaren legeztatzea Floridan.
- 1938. New Yorkeko "Hippodrome" frontoia ireki.
Ez zuten apostue baimena eskuratu.
- 1953. Dania Jai Alai ireki. "The Palace"
- 1950s, 60s: Frontoi berriak ireki Floridan.
- 1970s: Frontoi berri gehiago, Connecticut,
Nevada eta Rodhe Island estatuetan.
(16 frontoi eta +500 pilotari batera)
- 1988-91: Pilogarien greba + kirol eta apostu berrien agerraldia.
- 1991-2021: Dekadentzia eta frontoien itxiera.
- 2021: Dania Jai Alai itxi, zabalik geratzen zen azken frontoia luzea.
- 2022-25: Daniak 2-3 hilabeterako ireki, pilotari gazteekin.
- 2025: BISCAYNE CUP, 1. edizioa.

BISCAYNE CUP

Hau guztia dela eta, "Biscayne Cup" txapelketa berriak zesta-puntak Floridan izan duen 100 urteko historia omendu nahi du, baina baita Euskal Herriak zonalde horretan izan duen presentzia nabarmendu ere. Horren lekuko da Miamiako toponimia.

Biscayne Fronton: *Floridako frontoi historikoa, ondoren Miami Jai Alai izena hartu zuen.*

Bay Biscayne: *56 km-ko luzera duen ur tropikalen badia ezaguna, "Cayoetatik" Miami hirira arte heltzen da.*

Biscayne National Park: *Badia eta uharteak hartzen dituen Parke Nazionala.*

Biscayne Boulevard: *Miamiako etorbide luzeena (30 km), hiri erdi-erdian hasi eta iparralderuntz doana.*

Key Biscayne: *Miamiako uharte edo "cayo" ezaguna.*

(CAST)

BISCAYNE CUP

LA APUESTA POR LA INTERNALIZACIÓN DE LA JAI ALAI LIGA

Nada más finalizar el Eusko Label Winter Series, el frontón de Dania (Florida) acogerá la primera prueba internacional de la Jai Alai League. Se trata de un torneo de categoría Master y se disputará los días **20, 21 y 22 de febrero**. Pero lejos de ser una prueba más del circuito, el **Biscayne Cup** es la gran apuesta de la temporada con unos objetivos muy superiores a los reflejados en la puntuación de la Liga.

La 1º edición del Biscayne Cup es una pieza clave en el plan estratégico de la empresa **ERAMAN!**. El objetivo es mantener vivo el carácter internacional de la cesta-punta.

Para ello, la empresa contará con los siguientes pelotaris: **Erkiaga, López, Barandika, Mancí, Johan, Lekerika**, junto a los dos pelotaris que ganen el torneo que en estos momentos se está jugando en en Dania. Este campeonato previo comenzó el 3 de enero, están participando 8 parejas y también forma parte de la Jai Alai League.

De los pelotaris anteriormente mencionados, todos menos Erkiaga han sido pelotaris de Dania.

¿POR QUÉ DANIA?

Desde ERAMAN! queremos mantener viva la llama de la cesta-punta allá donde todavía existan frontones largos. El primer paso de la internacionalización será en el frontón de Dania (Florida). ¿Por qué?

- Es el único frontón largo de EEUU que todavía permanece abierto. Ofrece una temporada de 3 meses.
- Creemos que esa temporada puede resultar importante para la progresión de pelotaris jóvenes.
- Existe una muy buena relación entre la empresa ERAMAN! y la intendencia de Dania Jai Alai (Benny Bueno).
- El primer resultado de esa buena relación ha sido la coordinación de agendas para que dos pelotaris jóvenes (Urreisti y Gorka) hayan jugado tanto en el Winter Series como en la temporada de Dania.
- Dania es el frontón americano más conocido y con el que más relación hemos tenido en nuestra generación.
- Dania Jai Alai es un frontón con mucha historia. Abrió en 1953,

dos años antes que el Ezkurdi de Durango (1955) o 10 años antes que el Jai Alai de Gernika (1963).

RECUPERAR LA ILUSIÓN

Después de 100 años, la cesta-punta sigue viva en los EEUU. Hay un grupo incondicional de aficionados que sigue la actualidad puntista. Con la 1ª edición del Biscayne Cup, el objetivo es:

- Volver a ilusionar a los aficionados de los Estados Unidos y juntarlos a todos en un gran campeonato.
- Ofrecer la mejor cesta-punta al público americano llevando los mejores pelotaris a Florida.
- Recordar los grandes campeonatos que se hacían en EEUU (NAJF, Citrus, World Series, etc).
- Presentar la cesta-punta como un gran espectáculo deportivo y no como un modo de apuesta.
- Activar a los fans, empresas e instituciones de EEUU. La responsabilidad de mantener viva la cesta recae en ellos, pero vemos necesario organizar un gran torneo para ello.

LA CESTA COMO PROYECTO DE PAÍS

Desde ERAMAN!, entendemos la cesta-punta como un proyecto de país. Nuestro objetivo es llevar la "Jai Alai League" allá donde todavía existan frontones largos en el mundo. Lo decía recientemente Carmelo Ezpeleta, consejero delegado de Dorna Sports (Moto GP): "La cesta-punta es el mayor estandarte que tiene Euskadi para presentarse en el mundo".

Desde ERAMAN! queremos que el Jai Alai siga siendo internacional y que vuelva a ser una herramienta para mostrar a nuestro país allá por el mundo.

EEUU: MÁS DE 100 AÑOS DE JAI ALAI

La cesta-punta tiene más de un siglo en los EEUU. Dejando a un lado los frontones iniciales de San Francisco (California) y Saint Louis (Missouri) a principios del siglo XX, el Jai Alai se asentó en Florida en el año 1924. La cercanía con la isla de Cuba hizo que un grupo de empresarios llevara el deporte a la ciudad de Miami. El primer frontón de la Florida se construyó en 1924 en el municipio de Hialeah, hoy en día situada dentro de la gran urbe de Miami. Aquel frontón de Hialeah inició la gran aventura estadounidense de la cesta-punta que ha llegado hasta el día de hoy.

El famoso frontón de Miami Jai Alai se construyó en 1926 bajo el nombre de BISCAYNE FRONTON y fue competencia directa de Hialiah. Era un edificio más grande, más lujoso y mejor localizado que el de Hialiah pero ese mismo año un huracán arrasó con la ciudad de Miami. El frontón de Hialiah no volvió a abrir, sus promotores abrieron nuevas canchas en New Orleans o Chicago, y el Biscayne se convirtió en la única oferta puntista para la sociedad de Miami.

Tras la gran depresión de 1929, un empresario de Boston, Richard Berenson, se adueñó del Biscayne Fronton llegando a ser una figura clave en la historia del deporte. Tras la legalización de la apuesta en los años 30, Berenson llevo a la cesta-punta a unas cuotas inimaginables. El negocio del Jai Alai triunfó. Se abrieron más y más frontones. Primero en Florida y ya, a partir de los 70, en los estados de Connecticut, Rhode Island y Nevada. El frontón de Dania se inauguró en 1953 (dos años antes que el Ezkurdi de Durango y 10 años antes que Gernika Jai Alai). Fue bautizado como "The Palace", el frontón más elegante de los EEUU cuando ir a ver funciones de cesta-punta era un acto de gran prestigio social.

Han llegado a haber 16 frontones abiertos a la vez, con cerca de 500 pelotaris en activo. La gran mayoría, vascos. Las temporadas duraban 3 o 4 meses, los pelotaris iban de un frontón a otro pero dada la rentabilidad del negocio, las temporadas se fueron alargando. A principios de los 80, los frontones empezaron a ofrecer temporadas completas de todo el año.

La huelga del 88 no fue el primer conflicto laboral, pero sí el que marco un antes y un después en la historia de la cesta-punta. Duró hasta 1991. En esos tres años, aparecieron nuevos deportes, se legalizaron nuevas formas de apuesta y comenzó la decadencia. Los frontones fueron cerrando uno a uno hasta que en noviembre del 2021 bajó la persiana el único frontón largo que permanecía abierto: Dania Jai Alai. Con los últimos cambios legales, la empresa no necesitaba ofrecer cesta para tener abierto el casino.

Ya sin obligaciones legales, desde el año 2022 el frontón de Dania ofrece temporadas de 2-3 meses a un grupo de 22 jóvenes pelotaris vascos que todavía tienen la oportunidad de ir a los EEUU, conocer mundo y progresar como pelotaris. La llama sigue estando viva.

CRONOLOGÍA

La cesta-punta surge como disciplina deportiva en 1888 en Argentina. En sus casi 140 años de historia, el carácter internacional del deporte ha sido parte indispensable de su identidad siendo EEUU el principal país de referencia. Dejando a un lado los frontones iniciales de San Francisco y Saint Louis, este es el resumen de su historia.

- 1924. Abre el frontón de Hialiah. El primero de Florida.
- 1926. Se inaugura el Biscayne Frontón (Miami Jai Alai).
- 1926. Gran huracán de Miami. Cierra el Hialiah.
- 1926-27: Abren frontones en New Orleans y Chicago.
- 1929. Gran Depresión.
- 1933. Richard Berenson compra el Biscayne Fronton.
- 1934. Legalización de las apuestas en Florida.

- 1938. Abre el frontón "Hippodrome" de New York.
No consigue permiso de apuesta.
- 1953. Se inaugura Dania Jai Alai. "The Palace"
- 1950s, 60s: Abren nuevos frontones en Florida.
- 1970s: El Jai Alai salta a Connecticut, Nevada y Rodhe Island.
- 1980s: Las temporadas pasan a ser de todo el año.
(16 frontones y más de 500 pelotaris a la vez)
- 1988-91: Huelga de pelotaris, llegada de nuevos deportes y apuestas.
- 1991-2021: Decadencia y cierre de frontones.
- 2021: Cierra Dania Jai Alai, último frontón largo en activo.
- 2022-25: Dania reabre para 2-3 meses con pelotaris jóvenes vascos.
- 2025: 1º edición del BISCAYNE CUP

BISCAYNE CUP

Por lo mencionado, el torneo "Biscayne Cup" homenajea todo un siglo de pelota en Florida, pero también a la importante presencia vasca en la zona, tal y como atestigua la toponimia del área de Miami.

Biscayne Fronton: *Frontón histórico de Florida, más tarde conocido como Miami Jai Alai.*

Bay Biscayne: *Bahía de aguas tropicales de 56 km de extensión, desde los Cayos hasta la ciudad de Miami.*

Biscayne National Park: *Parque Nacional en la bahía de Miami.*

Biscayne Boulevard: *Es la avenida más larga de Miami (30 km) que parte desde el centro de la ciudad en dirección norte.*

Key Biscayne: *Famosa isla o "cayo" de Miami*